




## 2 VITORIA-GASTEIZ HAPOaren BERRIKUSKETARAKO HELBURU ESTRATEGIKOAK

Hiri Antolamenduko *Plan Orokorraren Helburu Orokorrak: HAPOaren benetazko helburuak – Ingurumen helburuak, Ekonomikoak eta Sozialak* 1.ngo koadernoaren agiria sail, empresa eta udalerriko erakunde autonomoen parte hartzearekin egin zen eta onartu egin zen 2015.urteko urrian HAPO berrikusketaren hitzarmenean.



Helburu hauek 2016an *HAPOaren Aurrerapenerako Proposamenen Sintesia* koadernoak egiteko oinarri bezala erabili dira, eta ondorengo helburu estrategikoak Vitoria-Gasteizko HAPOaren berrikusketarako.

### 2.1 INGURUMEN BABESA LORTZEA

Lurraren ingurumen egoerari buruzko herritarren parte-hartze progresiboa, maila ezberdinetara (Europar Batasuna, Espainia, EAE, etb) araudia garatzea posiblea egin du. Giza habitatah ahalik eta gehien mantentzea eta hobetzea bilatzen da, baliabide naturalen zentzuzko erabilpena planteatzeko, hiritarren bizi kalitatea hobetzeko eta zaintzeko; eta ingurumena defendatzeko eta berrezartzeko ezinbesteko solidaritate kolektiboan oinarrituz.

Alde horretatik, Vitoria-Gasteiz joeretara aurreratu da eta udalerriri atxikitutako faktoreak zaindu ditu. Salburuako hezegunea, Zadorra ibaia, arabako landazabala, etb. Eratzun Berdea osatzen dutenak, hiritarrek aintzat hartzen duten elementurik garrantzitsuenetarikoa, herriari izaera propioa ematen diotenak dira.



Plan Orokorrak udalerrian garatzen diren jarduerak (bizitegi erabilerak, jarduera ekonomikoen erabilerak tertziario edo industrialak bezala, nekazaritza erabilerak, etb) ezin ditu saihestu. Jarduera guzti hauen euskarria Ingurune Fisikoa dela jakinda, bere garapenaren gainean eragina izatea edo aldatzea ezinbestekoa da, hala ere, elementu berezi guztien babesbermatzen da, inpaktuak murrizteko beharrezkoak diren neurri babesleak ezarritik.

Halaber, Ingurune Fisikoaren gaineko afekzio maila zehaztu daiteke eta ondorioz, eraldaketak jasan dezakeen lurzorua. Honekin zehaztu daiteke lurzorua okupatu behar bada edo osterak, desklasifikazioa planteatu daiteke lurzorua gehiago ez antropizatzeke.

Gaur egun, hiriko zona batzuen alboko zonaldeetan itxaropenak sortzen dituzte, ez bakarrik hirian Tokiko Erakunde Txikietan ere bai. Hiri alboko zonaldeetan nekazaritza erabilerak edo erabilera naturalak galarazten dituzte, hiri eta landaren arteko zonalde hauetan dibertsitate paisajistikoaren edota biologikoaren galera sortuz.

Ildo beretik, Vitoria-Gasteizko HAPOak onartutako aukerak Ingurumenean eta Ingurune Naturalaren babesan gakoak dira. Plan Orokorrean, Vitoria-Gasteizko udalerririk lurralde antolamenduaren instrumentua da eta Ingurune Fisikoaren erregulazioa ezarriko du, erabilerak, maila, baldintzak, etb-etan garatu ahal diren zehaztuz.

Gaur egungo Plana bere erregulazio eta araudiarekin ezartzen zuten: Ingurune Naturalerako babes abiapuntu bat, jarraitu behar zena eta HAPOaren berrikuspenean osatu edota hobetzen zuenak. Elementu esanguratsuenak edo ospetsuenak babesteaz gain, Lurzoru Urbanizaezin osoaren erregulazioak hurrengo baloreak zaintzen zituzten: ekologia, paisaia, aisialdia eta kultura ingurumenaren eta garatu ahal diren jardueren arteko oreka.

Honetarako ingurumena zaharkitzen dituzten prozesuetara aurreratzeaz gain beharrezkoa izango da: zaharkitutako eremuak berreskuratzea, basoberritze, ibilgu eta ibaiertzen berreskurapena, etb... aurreko inpaktuak zuzenduz eta hobetuz edo gizonak ingurunean sortutako aldaketak hobetuz.

## 2.2 HIRI TRINKOA, KONPLEXUA ETA KOHESIONATUA

*“Kaleak eta bere espaloiak, hiriko espazio publiko oinarrizkoenak, bere organo bizienak dira. Zer da hiri batean pentsatzean burura datorkigun lehenengo gauza? Kaleak.”*

*Jane Jacobs*

Gaur egun hiri trinko, konplexu eta kohesionatuaren kontzeptua berreskuratu da eta lurzoruaren gehiegizko erabilpena eta baliabideen neurrigabeko kontsumoa alde batera utzi da. 1950. urteetan zientifikoak eta hirigileak, defendatzen defendatu izan zuten ereduak izan zen. Adibidez Jane Jacobs bere liburuan: “Hiri handien bizitza eta heriotza”.

Aurretik aipatzen zen bezala hoberen funtzionatzen zuten hiria dentsitate egokiarekin erabilera anitzak eta jardueren aberastasuna (bulegoak, etxebizitzak, kultura, aisialdia, parkeak, etab.) sustatzen zituztenak ziren. Azpimarratu behar da hirietan alderdi bi hauek funtsezkoak zirela eta neurri baxuago batean auzoetan.



Alde batetik, zona berezietan edo funtzio bakarreoetan (parke teknologikoak, bulegoko zona eskusiboetan, etab..) eta bestalde etxebizitza, ekipamendu eta saltoki presentzia gutxi daukaten hirietan oinezkoen edo kaleko jendea ordu batzuetan gutxitzen da bizitasuna galduz.

Dentsitate minimoa ez egotekotan, saltoki txikien funtzionamendua ez zen posiblea izango, eskaririk ez zen egongo. Merkataritza txikirik gabe, espaloiak hutsik geratuko ziren eta kaleetan ez zen jenderik ibiliko, kaleko "bizitza" hori galduz. Ondorioak: gure auzoko espaloietan segurtasunik eza egongo zen, biztanleen bizi kalitatea murriztuko zen, desplazamenduak egiterakoan oinez joan beharrean kotxez egingo zen eta pixkana-pixkanaka espazioen zaharkitzea eta pobretzea.

Ildo honetatik esan beharra dago, adin, kultura, errenta, lanbidea eta abarreko pertsonen aniztasunaren kohesio soziala garrantzitsua da. Hiriko ghettoak saihestuz gain, auzoko eta kaleko aberastasun soziala eta kulturala sustatzen du, guztiontzako onura bat bihurtuz, hiri konplexuago bat sortuz eta orduro oinezkoen presentzia handituz.

Diagnostiko ezberdinen arabera, **Vitoria-Gasteizko auzo batzuk eta espazio publikoak bizigarritasun falta daukate**. Arrazoiak: **jende falta, populazio dentsitate baxuagatik sortutako saltoki falta**, Salburua eta Zabalganako aurreikuspen guztiak ez gauzatzeagatik edo hiri bilbean dauden hutsune garrantzitsuengatik.

Auzo berri hauen dentsitatea baxuagoa da, ondorioz beharrezkoa da **bizigarritasuna eta bizitasuna sustatzea HAPOaren helburuetako bat delako**. Gune berdeen, ekipamendu eta zerbitzuen lursailak berrantolatu eta optimizatzearen aukera planteatzen da. Bestalde, bestelako erabilerekin (bulegoak, etxebizitzak, aisialdia, parkeak, etab) zonaldeen arteko gertutasuna sustatuz eta akzio hauek lotura ardatzak sortuz edo hiri ibilbideekin osatuz, ingurabide kanpoaldeko eta barrualdeko auzoak lotzeko eta supertxadiak aprobetxatzeko.

Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraukorraren Sailak (2016) "*Etxebizitza parkea Vitoria-Gasteizen. Egikaritze-laburpena*" agirian, Vitoria-Gasteizek dentsitate baxua duela azpimarratzen du, 41 etxeb./ha, eta "*inguruko hiriekin konparatzen badugu, Arabako hiriburuak hiri-lurzoru finkatu kopururik handiena du, bai eta etxebizitza-dentsitate baxuena ere*". Hala ere, dentsitate baxua udal-mugartearen tamainaren arabera dela zehazten du, ondorioz, komenigarria litzateke hiria eta udalerraren arteko ezberdintasuna egitea. Arabako hiriburuak dentsitate baxuena dauka nahiz eta etxebizitzaren dentsitatea finkatutako hiri lurzoruaren arabera kalkulatu.

Europar finkatutako hirien erdialdearen batez besteko dentsitatea 93 etxeb./ha-koa da, Vitoria-Gasteizen berriz egungo batez besteko dentsitatea 57 etxeb./ha-ko da (Tokiko Erakunde Txikiak eta ekoizpen erabilera lurzoruak kenduz). Iruñan 79 etxeb./ha, Donostian 67 etxeb./ha eta Bilbon 143 etxeb./ha daude. Indarrean dagoen HAPOaren aurreikuspen guztiak gauzatzen badira hiria 62 etxeb./ha edukitzera heldu ahal da.

Familien tamaina murrizketa eta pertsona bakarreko etxeen gehikuntzak, biztanleriaren etxebizitzaren kontsumoan eta lurzorian gainezka egin du. Hortaz, etxebizitzaren dentsitatea aztertu beharrean biztanleriaren dentsitatea aztertzen badugu, bizitasunagatik bereziak diren Espainiako hiri batzuk Vitoria-Gasteizko gutxi gora beharera populazioa daukatela ikusten dugu. A Coruñaren kasuan 6.446 etxeb./km<sup>2</sup>-ko dentsitatea, Hospitalet de Llobregat 20.548,70 etxeb./km<sup>2</sup>, Gijon 1.504,72 etxeb./km<sup>2</sup> eta Vitoria-Gasteizen berriz 876,65



etxeb./Km<sup>2</sup>-ko dentsitatea. EAEaren barruan Donostia 2.959,97 etxeb./Km<sup>2</sup> eta Bilbo 8.435,5 etxeb./km<sup>2</sup> (2017an Eustatek emandako datuen arabera) dauzkate.

Ondorioz, egungo **hiri erdialdeen jarduera maila eta bizitasuna mantendu nahi badute, ezinbestekoa da hazkunde berrien dentsitate egokia** berriro planteatzea. Edo ostera, aurreikuspenak gauzatu ez dituzten lurzoruen desklasifikazioaren aukera kontsideratu behar bada.

Bizitegi eremu klasifikatuen dentsitatea berriro planteatu behar da, finkatutako hiriaren dentsitatearen gehikuntza proposatuz, adibidez aurreikuspenak gauzatu ez diren lursailetan edo existitzen diren hiri hutsunetan eta erabilera anitzekin osatuz: bulegoak edo bizitegiarekin osagarriak diren jarduerak, tailerrak, lantegiak, etak...

Azkenik, Vitoria-Gasteizko Udalak "Gasteizko 2017ko biztanleri buruzko txostena. 2016eko demografia mugimenduak" txostenean azpimarratzen du auzo batzuetatik bestera biztanleria mugitu dela, ondorioz Salburua, Zabalzana eta Aretxabaleta-Gardelegiko auzoak dira hazten direnak.

### 2.3 INGURUNE ETA TOKI ERAKUNDE TXIKIEN BULTZADA ETA BABESARANTZ

Orokorrean, Tokiko Erakunde Txikiak (TET) bereziki nekazaritza eta abeltzaintzako lurzoruetan kokatzen dira, hortaz, bizitegi nukleoak nekazaritza jarduerari lotuak daude. Asentamendu historiko hau hiri bilbearen hedapenagatik aldatu izan da, (Betoño, Ehari/Ali, Abetxuko, Aretxabaleta eta Gardelegi) TETak sartu dira eta lurzoru erabilera berria agertu da, lo egiteko etxebizitzak adibidez, bere biztanleak hirian garatzen dituzte jarduerak.

TET-en analisisian Araba Lautadako herriaren etxebizitza mota historikoa eta bizitegi tipologia berriak kontuan izan dira, hiru talde zehaztu dira: bere landa izaera mantentzen dutenak, izaera mistoa daukatenak eta lo egiteko hiriak direnak. Azken urteotan, bereziki isolatutako etxebizitzak eraiki dira, lo egiteko etxebizitzak deitzen direnak, hau da, lan jarduera (nekazaritza jarduera izan ezik) bere herritik kanpo egiten dutenak, bereziki hirian.

Isolatuta dauden urbanizazio eredu hauek TET-etan ezarrita egon arren, ez dute landa gunen dinamika hauekin elkarbizitzen eta desplazamenduak ibilgailu pribatuekin egitera eramaten dute.

Parte-hartze mota hauek kasu askotan TET-ak formaz aldatu dute, **nahiz eta bere lehenetsunezko helburu bat beraien identitatea mantentzea izan, hiri eta eraikuntza tipologiaren ezaugarri espezifikoak mantenduz** eta hiriarekin eta ingurune naturalarekin erlazionatutako baldintza espezifikoak onartuz.

TET-kiko antolamenduan kontsideratu beharreko beste aspektu bat ingurune naturalarekin daukan erlazioa da, bereziki ingurune ezaugarriengatik babestutako lurzorua. Vitoria-Gasteizko dinamika bere handitze progresiboekin ingurune naturala handituz edo gutxituz joan da, ez bakarrik hazkundeetan, baizik eta nekazaritza jardueretan edo balio altuko ustiapen zonaldeetan, isurpen eta zaborretan; edo zonalde hunkigarrietan ongarri eta pestiziden erabilpenean edo akuiferoen urrakortasunean, etab.



Zaharkitutako eremuak eta ibai ertzeen berreskurapenaz gain, **HAPOaren lehentasunezko helburua TET-kiko landa jardueren mantentzea da**, nekazaritza sektorearen populazio murrizketak sortzen duen despopulazioa saihestuz, erabilerak eta jarduerak sustatuz TET-kiko identitate bakoitzarekin bateragarria izanik, baina nekazaritza-abeltzaintza jarduerak sustatuz, lehenengo eraldatze eta merkataritza lehen sektoreko jarduerak, landa-turismoa, aisialdi eta turismoarekin lotutako jarduerak, etab... araudiaren erregulazio espezifikoaren bidez indartuz.

Horretarako beharrezkoa izango **litzateke TETen bizitegi gaitasuna doitu aurreikusten diren egungo eskaintzara**, Plana iraunaldian dagoen bitartean. **HAPO berrikuspenaren helburu** bezala ezartzen da lurzoru gehiago ez okupatzea. Zentsu honetan baloratu beharko da burutu gabeko lurzoruaren desklasifikazioa edo eraikuntza tipologiaren berrikusketa eta urbanizazio diseinuaren berrikusketa desklasifikazioa bideragarria ez bada. Proposamen hau ez litzuke utziko erakundeak hazi gabeko aukerarekin, zeren eta, sailkatutako hiri lurzoruan existitzen diren erabili gabeko lursailak okupatuz etxebizitza kopuru nahikoa sortuko zen beraien hazkunde begetatiboak zurgatzeko.

Bestalde, kasu bakoitzean hartutako erabakiaren arabera, Plan Orokorraren ondorengo faseetan desklasifikazioaren ondoren emandako ezarpen edota indemnizazioak aztertuko dira. Trukaketak planteatzea komenigarria bada edo aprobetxamendu galerak sailkatutako beste lurzoruetan konpentsatzea edo gauzatzea zein bere inpaktua txikiagoa den edo parte-hartze antropiko bat edo lurzoruaren artifizializazioa inplikatzeko ez duenak.

## 2.4 KULTURA ONDAREA, NATURALA ETA PAISAJISTIKOA BALIOAN JARTZEA

**Kultura Ondarearen helburu nagusiak, Ondasun Kulturalen kontserbazioa eta babespenaz gain**, udalerraren Ondare Kulturalaren transmisioa, sustatzea eta balioan jartzeak dira. Oinordetutako ondasun multzoak kontserbatutako eta igorritakoak bezala ulertuak.

Vitoria-Gasteizko ondare artistiko, historiko, arkeologiko eta etnologikotik abiatuta, eta ondarearen araudiarekin bat etorriz, helburu bezala ezartzen da: **ondare kulturalaren inbentarioa (historiko, arkeologiko eta etnografiko) osatu eta eguneratu behar dela, udalerrian existitzen diren kokapen naturalen eta paisajistikoen babesa mantendu behar dela eta ibilgu eremuei sartu ahal diren ibilbideak aztertzea.**

Iraunaldian dauden tresnek igorritako ondare ondasunen zerrendak eta erakunde ezberdinek igorritako zerrenden artean desdoitzeak daude eta konpondu behar dira. Ondare balorazioa eta ondasun ezberdinen kontserbazio egoera Babes Ordenantzen Berrikusketa egitea suposatuta daiteke, arazoak, gabeziak edo zenbait ondare ondasunen babesa zabaldu behar denean daukana egokia ez delako.

Ondare kultural informazioaren kantitate eta kalitateari dagokionez, hiriaren ingurune historikoari buruz informazio gehien daukagun kokagunea da, hiri historikoan erdi aroko irudia kontserbatzea eta mantentzea garrantzitsua da bere kaleetako hiri bilbea ikusgarria izaten jarraitzeko, kantoiak, iturriak, etab...

**Landa ibilbideak eta kultur ibilbideak sustatzeko** beste helburu bat da, Donejakue bidea bezala. Ibilbidea babestuta dago, eta hunkitutako herrialdeetako monumentu mugarriak ere





bai. Burdeos-Astorga bideko erromatar galtzada ere babestuta dago, Askartza eta Margaritako kokaguneetan kontserbatzen da Iruña-Veleiarekin lotuz.

Bestelako ibilbideak existitzen dira, Erromanikoaren Bidea bezala Estibaliz eta Armentiaiko kokaguneen artean; edo Hiri Historikoaren barruan balio kultural eta turistikoa duten beste ibilbide batzuk (Erdi Aroko Vitoria eta Errenazimenduko Vitoria, jauregiak barne (gortea) eta hirian dauden beste ibilbideak (Ilustrazioko Vitoria, Vitoria Erromanikoa, etab.); hortaz ibilbide konbinatuak sortzea planteatzen da.

Komenigarria litzateke ibilbideen seinalatzea eta informazioa, eraikin nabarmenak bezala, aztarnategi arkeologikoak, espazio bereziak eta herriak.

Bere kontserbazioa arriskuan daukaten hutsik dauden eraikuntza monumentalen erabilera berriko zuzkiduran hurrengoak ere aurkitu ditzakegu: Zulueta Jauregia edo Eskoriatza-Eskibel Jauregia. Hiri Historikoa dinamizatzeko edo berpizteko elementuak izan ahal direnak.

**Kokapen natural eta paisajistikoen ikuspuntutik; eta garapen iraunkorra lortzeko helburuarekin, ezinbestekoa kontsideratzen da Gasteizko Mendien eremua babestea, Eratzun Berdea finkatzea ibilguen babespena sartuz, ertzeen baldintza naturalen eta korridore ekologikoaren paperaren kontserbazioa bermatuz.**

**Eratzun Berdearen finkapen helburua azpiegitura Berdea bezala, funtzio anitzeko espazioa bezala eratzen da.** Bere planteamendua alde batetik, ez da bakarrik inguruneke espazioaren berreskuperapena eta balioan jartzea, parke naturalen sarea eta ingurunearen ikuspuntutik espazio bereziak sortuz; baizik eta, beste alde batetik, aisialdirako, kirolarako, hezkuntza eta sozial erabilerarako "ertzeko espazio" bat sortzen da, inguruneke jarduerak egiteko aukera ematen dutenak, hiri larreak bezala edota alokairuzkoak, hiriaren ingurune kalitatea hobetzeko, hiritarren osasun eta bizi kalitatera lagunduz.

**Ezinbestekoa da Arabako Lautadan hain berezia den ohiko laborantza paisaia, Hirian dauden laborantza lurzoruen babesa handia Eratzun Berdearen luzapena izanik, eta Toki Erakunde Txikiko irudia** mantenduz, oraindik desitxuratu ez direnak gordez, paisaian dagoen laborantza izaera eta bere tipologia; lurzoru urbanizagarrien sektoreen desklasifikazioa sortu daiteke eta ohiko hiri paisaiarentzako kaltegarria izan daiteke momenturarte kudeatu eta garatu barik egoteagatik.

Paisaia, hiri ingurunetan eta landa ingurunetan lurraldeen bizi kalitate elementu garrantzitsu bat da. Zentsu honetan, Europar Hitzarmenak paisaiak definitzen du lurraldearen zati bat bezala eta hiritarrak hautematen duten bezala. Bere izaera faktore natural eta gizaki faktoreen arteko interakzioa da.

Lurralde, sektore eta udal plangintzak daukaten sentsibilizazioa Paisaiarekiko ezinbestekoa da, plangintzak paisaiaren transformatze eta aldakuntzan gauzatzen da, sare elektrikoekin, komunikazio sareekin, eraikuntzekin, etab... Kasu askotan Vitoria-Gasteizen gertatzen den bezala bere eraldatzea oso azkarra da.



## 2.5 LURRALDE IRAUNKORRA ETA ENERGETIKOKI EFIZIENTEA LORTZEA

Plangintzak berrikusketan sartu beharreko helburuetako bat lurralde iraunkorra eta energetikoki efizientea lortzea da, ez bakarrik lurzoru berriaren kontsumoa murriztea, existitzen diren bizitegi lurzoruak eta industrialak lohiz betez, birgaituz eta berrituz; baizik eta beste kontzeptuetara banatuz: mugikortasuna, zerbitzuen azpiegiturak, osasun publikoa, elikadura, etab... zeharkako modu batean.

Hiri trinko eta dentsitate egokiarekin, errepide azpiegitura egoki bat mugikortasuna arina izateko baina ibilgailu pribatua beste garraioengan lehentasuna eduki barik, hiri zerbitzu sare batekin (hornikuntza, saneamendua, herriko argiak, hondakinak, etab..), kontserbazio egoera on batekin, berritapen eta eguneraketarekin, biodibertsitate indize on batekin eta gune natural edo berdeetara heltzeko sarbide egokia, hiri jasangarri bat errazten du eta hiri "osasuntzuagoak" bilakatzen dituzte.

Ildo beretik, **mugikortasuna iraunkorra** errazten dituzten neurriak (**Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Planean** aurreikusitakoekin bat etorritik, oinezkoen eta bizikletentzako ibilbideak erraztuz, osasun bitzita sustatuz eta gaitasun altuko garraioak sustatuz) eta beste baliabidetako efizientzia, ura eta energia adibidez, eta lurraldean eman ahal diren inpaktu posibleak, akuiferoan kutsagarritasuna, airezko lurzoruak, hiri hondakinak etab...

Lurraldean eragina duten baliabide guztietako kudeaketa integrala ezinbestekoa da, **Pariseko Hitzarmenarekin** zuzenean lotuta dagoen kontzeptua (Pariseko hitzaldia klimari buruz COP21), aldaketa klimatiko arriskutsu bat saihesteko, ekintza plan global bat ezartzen da beroketa globala mugan jarritz 2 °C-tatik behera eta igorpen globalak murriztuz.

Vitoria-Gasteizen ezarritako helburua lortzeko ezinbestekoa da: karbonoari dagokionez hiri neutroa 2050, emisio gabeko hiri neutroa planteatzen du eta energetikoki eta elikadurei dagokionez bakarrik hornitzen da, hurrengo jarduketa lerroak garatuz:

- **Kudeaketa efizientea hondakinetan** (Gasteizko udal hondakinak kudeatzeko plan integrala 2008-2016), eragin kutsatzailea murrizteko, birziklapen, autokonpostaje eta berrerabiltze tokiko kudeaketa eredu bilatuz.
- **Ur ziklo osoaren kudeaketa efizientea** (Uraren zikloa hobetzeko plana), besteak beste hurrengo alderdiak kontuan hartzen dituenak: euri uraren biltzea, bazterraldeko uraren berrerabiltzea, etab... neurri gisa ura bezalako baliabide bat aurrezteko eta optimizatzeko eta lur azpia mantentzeko lurpeko uren kalitateari ez hunkitzeko.
- **Energia kontsumoa aurrezteko estrategiak**, energia erabilpen efizientearekin (espazio pribatuarekin eta espazio publikoarekin), gizartearen sentsibilizatzearekin, eskaera murrizten duen kontsumo arduratsuekin eta efizientzia eta birgaitze irizpideekin eraikin berriak diseinatuz eta eraikiz.
- **Energia berriztatzaileen inplementazioa** sustatzen dituzten estrategiak, eraikin berrietan sortu den energiaren produkzioa Eraikuntzaren Kode Teknikoan ezarritakoarekin bat etorritik, eraikinetan energia berriztatzaileen iturri sistemak aplikatu: sistema geotermikoak, biomasa, eguzki-termikoa, fotovoltaiako, aerotermia, efizientzia altuko beste teknologiak kogenerazio sistemak bezala.



- **Hiriko CO<sub>2</sub> bilketa sustatzea**, baso eta mendien basoberritzearekin; eta zaharkitutako hiri lurzoruen berritzea CO<sub>2</sub> hustubideetan bihurtzeko.
- Emisioak murriztu eta **elikagaien autohornikuntza**, tokiko merkataritza indartzeko tokiko produktuak eta bere kontsumoa sustatuz.

Kontzeptu guzti hauen batuketa, elkarrekin erlazionatuak ondorengoa lortu dezakete: berotegi-efektuaren emisio gasak eta ekosistemen afekzioak murriztea, aldaketa klimatikoko neurriak egokitzea eta lurraldearen erresilientzia handitzea.

Hirigintza alderdien gehikuntza, **Vitoria-Gasteizko udalerrriaren** azpiegitura berdea bezala, ekosistemak eta hiriaren prozesu naturalak hobetuko lituzkete, hiriaren hobekuntza handituz eta hiritarren osasuna eta bizi kalitatea hobetuz, besteak beste.

Vitoria-Gasteizko azpiegitura berdea hurrengoetan lagundu eta kolaboratu egiten du: aldaketa-klimatikoaren arintzean, hiriaren biodibertsitatean hobetzea eta bultzatzea, loturak hobetzean, irisgarritasuna eta korridore ekologikoetan, baliabide naturalen kontsumoa murrizketan, udal ondare naturalaren kontserbazioan eta hobekuntzan, gune berdeen erabilpen publikoa bultzatuz eta ingurumen, sozial eta biodibertsitate zerbitzu maximoak lortuz, besteak beste.

Tokiko baliabide naturalen enplegua sustatzea eta nekazaritza elikagaien hornikuntzen kolaborazio politiken sustatzea (nekazaritza lurraldeen udal bankua, barazkigintza lurzoruen mugapena, nekazaritza eta abeltzaintza erabilerak, etab.), hurbiltasunean kontsumitu ahal izateko lurralde propioaren elikagaien produkzioa. Ondorioz garraiotik etorritako kosteak murriztuko ziren.

Landutako helburu batzuen artean, plangintzaren berrikusketan eragin zuzena daukate, lurzoru erreserba behar dutelako edo arau aplikazioan eragin zuzena daukatelako. Berriz, beste alderdi batzuk kudeaketari lotuak daude edo zenbait politiken inplementazioari, ondorioz, plangintzatik ezin da gauzatu baina ahal ziren guztiak batu izan dira.

Azkenik, hiri ingurunearen kalitate eta iraunkortasun adierazleak ezarri, "Vitoria-Gasteizko hiri iraunkortasunaren adierazle Planean" ezarri direnak bezala. Bizi garen hiri ingurunea ebaluatzeko erabiliko da, ezinbesteko da neurri zuzentzaileak ezartzeko eta hiriak aurkezten dituen alderdi desegokiak konpontzeko: espazio publikoaren bizigarritasun falta, hiriaren konplexutasuna, hiri edota dentsitatearen gaitasun arazoak, kohesio soziala, hiriaren biodibertsitatea eta gune berdeak.

## 2.6 LURRALDEAREN OREKA EKONOMIKOA LORTZEA

Hiri baten hazkunde gaitasuna zehazten duen faktore bat jarduera ekonomikoko erakarpenean gaitasuna izatea da, lan sorrera, talentua eta inbertsioa sortuz. Lan eta ekonomia hazkunde honekin hiri konplexuago bat lortzen da, dinamismo eta bizitasuna lortuz, oinezkoen eta jendearen presentzia kaleetan; eremu espezializatuagoak edo parke teknologikoak, industrialdeak, bulegoetarako eremu eskusiboa, etab.... eremuen aurrean.

Hazkunde hau Vitoria-Gasteizen orekatua ikusten da ekonomiko, sozial eta ingurumen jasangarritasun apustuarekin, ondorengo alderdiak aurreikusiz:





- Lurzoru gehiago ez sailkatu eta plangintzan aurreikusitako lurzoru erreserben desklasifikazioa baloratu.
- Industrialdeen lurzoruaren erabilera optimizatu, birgaitze, berreskurapen eta espazioen balio jartzearen bidez; baita pabiloien eta hutsik dauden lursailena ere.
- Hiri erabileren eta industrialdeen arteko bateragarritasuna posible egin. Bizitegi lurzoruekin bateragarriak diren jarduerak bizitegi hiri bilbean toki bat izan behar dute, eta beste alde batetik, lurzoru industrialetan erabilera tertziarioa edo espezializazioa duten zonaldeak eta poligonoak ere toki bat izan behar dute.

Honek industrialdearen eta eraikuntza ordenantzen eta urbanizazio aplikagarrien Araudi espezifikoen berrikusketa suposatzen du.

- Lurzoru tertziarioen sailkapena eta herrian planteatzen den merkataritza estrategia lotuak egon behar dira. Merkataritza zentro handien ezarpena eragin negatiboa sortzen dute txikizkarien merkataritzan, hortaz, merkataritza egituraren eta hurbileko ostalaritzaren kontsolidazioaren kontra joan daiteke.
- Komuneko zerbitzuak erraztu.
- Etab.

Alderdi ekonomikoan jarduera industrial eta tertziarioa indartzea bilatzen da jarduera ekonomiko berriak erakarriz. Zentsu honetan informazio eta komunikazioen teknologien agerpena ezinbestekoa da, hiri bizkor baten garapena bermatzeko azpiegituren sorrera suposatzen duelako (fibra optikoa, haririk gabe, sentsoreak, big data, mugikorrak, etab) eta enpresen lehiakortasuna bultzatzen dutelako, kosteak eta denbora murriztuz eta “feedbacka” edo bezeroen atzeraelikadura erraztuz. Enpresen eta marken irudia hobetzen da.

IKT teknologia hauen ezarpena negozioen munduan eta bizitzan zenbait azpiegituren ezarpena suposatzen du, enpresei zerbitzua emateaz gain orokorrean hiritarren beharrei arreta jartzen die, bizi kalitatea hobetuz eta baliabideen efikazia optimizatuz.

## 2.7 VITORIA-GASTEIZ, PERTSONA GUZTIENA ETA PERTSONA GUZTIENTZAT

Hirien diseinuan eta eraikuntzan, herritarren ongizatea beti nagusi izan behar da, bizitzeko behar diren garaietara egokitzen diren soluzioak bilatzen, zerbitzu eta bizimoduaren kalitatea, baita bere espazioak eta instalazio publikoak ere gehituz.

Denbora aurrera joan ahala, **hirigintzan osagai bakoitzaren ikuspuntu zabalago bat sartu da, helburu orokorra galdu barik, emaitza aberasten dute aurretik aipatutako gaien ikuspuntu sakona landu ondoren.** Kontutan hartutako alderdien artean hurrengoak azpimarra ditzakegu:

- Parte hartzea
- Genero
- Ingurumen kalitatea
- Osasuna



- Kultura eta identitatea

Azken finean, prozesu honetan lurralde eredia definitzeko zeharkako izaera duten sektoreak edo gaiak azpimarratzean datza. Hirigintza araudian garrantziko pisua ez izateagatik, ez du bere ospea galdu behar.

**HAPOnen aukeren definizioan, hirigintza barneratzailea eta integrala agertu behar dira, aurkitutako arazoei emaitzak proposatuz eta lurralde desorekak orekatuz.**

Zentsu honetan, plangintzaren berrikusketan hirigintzarekin erlazionatutako arrisku faktoreak konpondu nahi dira. Hiri bilbean egon daitezkenak eta espazioen “pertzepzioari” edo “ziurtasun sentzazioari” eragiten dutenak. Generoaren ikuspuntutik, edo biztanleriaren beste sektoretan eragina dutenak, pertsona nagusiak, umeak, etab. Hurrengoetan eragina daukatenak:

- Espazio publikoaren egoera, erabilera edo falta. Salburua eta Zabalganako auzoetan dauden espazio zabal bereziak. Hiriaren diseinuak pertsona nagusien eta umeen genero ikuspuntua kontutan hartu behar du. Ezpaloi zabalak eta bakarrak, malda edo tunel gaineko edo azpiko bideak, hiri bilbearen bazterrak, arkupe ez komertzialak, izututako etxebizitzaren atariak, etab. saihestu behar dira.
- Argiztapen eskasa edo falta zuzenean segurtasun eta segurtasunik ezaren pertzepzioan eragiten du. Gainera egoera honi angelu itsu edo bazterrak, ingurunearen edota zaharkitutako hiri espazioen ikustea oztopatzen dute edo degradatutako irudiak segurtasun falta gehitzen du.

Zentsu honetan eta adibide bezala, gaueko ordutegian atarietara sartzeko ibilgailu pribatuen egiteko aukera ematea bai kaleetatik edo oinezkoen bideetatik, emakumeei berehalako sarbidea emateko.

- Hiriko hutsune handiak, parke handiak bezala adibidez Arriaga parkea edo auzoak eta hiri bilbe edo aparkaleku zelaigune handiak banatzen dituzten bideak bereziki puntu sentikorrek dira eta gauean arazoak sortzen dituzte.

Ezinbesteko bihurtzen da hiri egitura trinko edo jarraia, ahal den neurrian hesi handiak kenduz (hiri errepedeak, burdinbide zatiak, etab.) eta erabili gabeko espazioak kenduz edo gaueko ordutegian (ekipamendu handiak itxi, aparkaleku zelaigune handiak, etab) erabilera aukerak gehituz espazio hauen ordutegiak handitzeko.

- Garraio publikoa desoreka edo ezberdintasun elementu garrantzitsua da, orokorrean bai lanerako eta bai aisialdirako erabiltzen den garraio ohikoena delako (emakumeak, pertsona nagusiak, etab.). Bere ibilbidea, hiri eta hiriarteko lerroen loturak, garraio publiko ezberdinen arteko loturak, ordutegi zabalera eta funtzionamendu egokia ezinbestekoak dira.
- Etab.

Ikuspuntu hauetan jarraitu beharreko **helburu orokorren artean beste irizpide batera lotua dago, OSASUNA.** Ongizate fisiko, mental eta soziala eta ez bakarrik gaixotasun eta min falta (OME)."



Definizioak kontzeptu orokorraren zabaltasun handia suposatzen du, erreferentzia ideak eta adierazleak lantzen joan dira pertsonen Osasuna hobetzen duten akzioak ebaluatzen saiatzeko.

Azpiegitura osasungarrian inbertitzearen eta Osasun zerbitzuen koste murrizketari buruzko ikerketak existitzen dira (p.e. King's Fund 2015). Bizikleta eguneroko garraioa bezala erabiltzeagatik inbertitutako libra bakoitzeko, lau berreskuratzen dira pertsonen zaintzari lotutako kosteetan.

Baloratzen diren adierazle anitzen artean, talde handi bat hiriaren egituraren eta funtzionamenduaren gain eragina daukate. Ondorengoak izan daitezke:

- Ingurumena
- Mugikortasuna eta iristeko moduko hiria
- Kirol aretoak eta elkarteen presentzia
- Udaleko zerbitzuak edo bestelako administrazioak
- Parkeak, plazak, bideak, bizikletentzako bideak, etab.
- Enplegua eta hurbileko ekonomia jarduerak
- Etxebizitza efizientea eta osasungarria
- Baliabide kulturalak, jarduerak egiteko eraikuntzak eta hiritik zehar ibilbideak.

Aldagai hauek maila ezberdinetan aplika daitezke, hirian multzo handi bat bezala edo auzo bakoitzean. Azkenean pertsona guztien osasuna lortu behar da.

Ondorioz, hirigintzan landutako ohiko kontzeptuenganako zeharkako irizpideekin aurkitzen gara eta zehazki hirigintza planaren idazketan.

Vitoria-Gasteizko hiria, aipatutako adierazleen betetzerako oinarri on bat dauka. Urteetan zehar ikuspuntu zabal eta handiak planifikatu dira, osasunean emaitza onak lortuz. Erronka beraz, hiri antolamenduaren ikuspuntutik berrantolaketa behar duten irizpideak hobetzean datza.

**Aurreko ataletan azaldutako helburu estrategikoak hiri osasungarri bat edukitzearekin lotuak daude.** Helburu hauek ohiko adierazleen ebaluaketarekin, ekimen analisiekin eta osasun efektuekin bat egiten dute.

- Ingurune naturalaren babesa, nekazaritza jardueraren zaintza eta elikaduraren gainean daukan eragina.
- Hiri konplexua hurbileko zerbitzuekin eta erlazioekin, bideekin eta ibilbideekin atsegina.
- Balio kulturalen babesa, bai eraikinetan eta bai higiezinetan.
- Jasangarritasuna bermatzeko baliabideen efizientzia.
- Aukera ezberdineko hiriaren gaitasuna enplegua bermatzeko hiri espezializatu baten aurrean.



Indartzeko edo barneratzeko gaiak ondo antzeman behar dira, burutzeko jarduketak edo parte hartzeak arrakasta handiaz egiteko, **hiritarren parte hartze jarduerak ezinbestekoak** dira, eta jadanik hiri ezberdinetan aplikaturiko metodologiak daude.

2014.urtean IHOBE eta udaletxe batzuk (Vitoria-Gasteizko udala barne) *“Tokiko hirigintza jarduerak osasunean zer eragin daukaten aztertze gida praktikoa”* idatzi zuten *“Osasun eta hiri-garapen jasangarria”* izenarekin.

Dokumentuak hirigintzako lau ekimenetan oinarritutako ekimenen analisi metodologikoa proposatzen du:

- Ekitatea ezberdintasun sozialaren aurrean. Komunitatearen zerbitzu ezberdinetara heltzeko aukera berdinak.
- Populazioaren osasunaren gaineko ondorioak aurreikusteko instrumentu bezala erabiltzea.
- Aztertutako adierazle edo aldagai bakoitzaren arteko harremana.
- Jatorriko diseinuaren parte hartze goiztiarra, existitzen den gaineko parte hartzearen gainean.

HAPOaren berrikuspenak aukera bikaina da dokumentuak planteatzen dituen proposamenak hobetzeko eta ebaluatzeko eta ondoren sartzeko. **Ondorengo kapituluetan garatutako aukerak osasunean eragin ezberdinak edukiko dituzte, beraz aukera hobereana zein den kontsideratzerakoan hiriaren etorkizunerako zein izango den egokiena baloratu behar da, biztanleriaren ongizatea suposatuko duten irizpideak kontutan hartuz.**

Laburbilduz, udalerrriaren hautematea hurrengoekin baldintzatuta dago: funtzionamendu sozial eta ekonomikoa, ingurumen eta kultura kalitatea eta emandako zerbitzuaz. Hiria, erabileren edo jardueren eta bere espazio publikoen bidez osatuta dago. Hurrengo faktoreen elkarbizitzarekin:

- Familia
- Lana
- Aisialdia
- Etab

Horregatik, Plan Orokorrari esker, espazio publikoa antolatzailearen erreferentzia izan behar da, antolamenduan finkatutako helburuen burutzea erraztuko du.

Bide eta mugikortasun egitura, espazio publikoak, etxebizitza mota, jarduera ekonomikoa, etb...hiriaren eredu definitzen dute. Hiri diseinuak, kalitate espazioen sorrera atseginak, bizigarriak, osasungarriak eta jasangarriak errazten dute.

Espazio publikoaren ulermena eta aitortpena sustatzea, integrazio eta gizarte kohesio handiagoa sustatzen ditu. Ezaugarri *“bereizgarriak”* eta gabeziak identifikatzeko eta ondo ulertzeko.

Hiri paisaia definitzeko, komuneko eta diferentziagarriak diren espazio eta elementuak identifikatu behar dira.

- Eraikuntza mota



- Auzoaren merkataritza
- Ardatz handiak
- Jardueren espezializazioa
- Igarotze zonaldeak
- Etab.

**Ekipamendu bereziak eta ondo antolatuak, eremuaren dinamizaziorako pizgarri bat suposatzen dute, auzoaren birsorpena eta birgaitzea sustatuz.**

**Jarduera anitzeko hiri trinkoa, hiri espezializatuaren aurrean aberastasuna eta bizitza sortzen du eta hurrengo erabilerak nahasten ditu:**

- Hiriaren arteko harremanak indartzen ditu
- Merkataritza eta zuzkidura espazioa berpizten du
- Auzoarekiko pertzepzioa eta lotura azpimarratzen du
- Garraio publikoari mesede egin
- Jasangarriagoa da lurzoruen baliabideei dagokionez
- Azpiegituren efizientzia potentziatzen du

**Lurraldeko kohesioa eta kohesio soziala, aurkeztutako aukeren atzean dagoen lehentasunezko helburu bat da.** Kasu batzuetan irizpide batzuk nagusituko dira beste batzuen gainean baina beti komuneko hurrengo alderdiak izanez:

- **Auzokideen zerbitzu kalitatea hobetuz**

Vitoria-Gasteizen dagoen zuzkidura sarea zabala eta kalitatezkoa da. Aipagarria da zentro zibikoen papera herritarrei emandako arretagatik, elkarbizitzagatik eta parte hartzeagatik.

Hiriaren etorkizuneko ekipamendu beharrak aztertzea hiritarrei zerbitzu hobeko bat eskaintzea suposatuko du.

Bizitegi modu berriak bezala zuzkidura modukoak kontsideratu ahal dira eta hutsik dauden lursailetan jarri daitezke. Adibidez nagusientzako edo gazteentzako zuzkidura ostatuak.

- **Biztanleriaren intereserako espazioak eta azpiegiturak**

Auzo bakoitzaren beharren arabera konponbide pertsonalizatuak finkatu ahal dira, adibidez, herriaren erdigunean pertsona nagusi gehiago bizi dira, hortaz, oinezkoentzako espazioak gehitu behar dira, ziurragoak eta irismen gehiagorekin, bai garraio publikoan eta bai hesi arkitektonikoak kenduz.

- **Auzoak hiriaren erdialdearekin lotuz**

Vitoria-Gasteizko auzo edo barrutien arteko lotura hobetzea identitatearen sentimenduari lagunduko du eta orokorrean bere erlazioari.

Garraio azpiegitura handien hedapenak, bereziki tranbia, aurrerapen handia suposatuko du eta hiritarrentzako ekipamendu handien irismena erraztuko du.



Garraio publiko sarearen hobekuntza zuzenean eragina dauka generoan, hau da, bereziki emakumea da zerbitzu honen erabiltzailea.

- **Erdialde berriak sortuz**

Auzo berrien hazkundera, kale eta etorbide handiekin, parkeak eta sakabanatutako eraikuntzekin, denbora pasa ahala finkatuz joango da eta bere jarduerengatik eta bitzita sozialagatik pisua hartzen joango da, espazio berriak eta hurbileko merkataritza sortuz.

- **Auzoak lotuz**

Jasangarritasun mugikortasuna garraio publikoaz lagundu. Hiria ez da bakarrik auzoen eta erdialdeko zonaldeen arteko loturari murriztu behar, gainontzeko zonaldeekiko harremanetara ere zabaldu behar da. Mugikortasun jasangarriarekin jarraitzea garraio publikoan, bizikleta eta oinezkoen mugikortasunean, ibilgailu pribatuaren erabilerarekin alderatuta, lagunarteko hiria konfiguratzeko oinarritzeko zutabea da. Horretarako garrantzitsua da ibilbide errazak, zurrak, iluntasunarekin eta iristeko errazak planteatzea.

Ikuspuntu honen erronka nagusia Ingurabidearen iragazkortasuna lortzea da, hala ere, hau bezain garrantzitsua hiriak izango duen trenbidearen lurperatzea da.